

BERTSOAK, Arantzako ongi etorri saioa.

Doinua: Begi umelak.

EUSKARAREN ATEA

Nahiz ta zaila izan ohi den
bizileku aldaketa bat
herri baten presentzia
ikusten da mapetatik at.

Nahiz hizkuntza berri batek
ematen digun beldurra
gero gustora egiten da
dagoen esfortzu apurra.

Etxea eta karrikak
dena egiten da berria
eta horrekin batera
aldatu behar oinarria.

Ez larrituta sentitu
Arantza guztiok bat gara
eta lotzen gaituena
gauza bat soilik da: euskara.

Kalean barna presentea
Etxe barruan den bakea
Xutik eusteko
Herria maitatzeko
Zabal-zabalik dago atea (bis).

Baldintza, indikatiboa,
Ahalera, deklinabidea
Nahiz gehiegi iruditu
Mantso-mantso doa bidea.

Gaizki eginen duzula
ustez ezin zaitezke bizi
nahiz orain zaila iruditu
Oena oraindik ez da iritsi.

Herriak kultura bat du
ta kulturak hizkuntza, klaro
eta jakizu Arantzan
Euskaldunak gara zeharo.

nahi gabe zure barruan
euskaldun bat pizten ari da
ba euskaraz erakutsi
Begietan duzun dizdira

kalean barna presentea...

Herri bat utziz bertze bat
Aukeratzen duzun bezala
Euskara aukeratzea
ez al da benetan normala?

euskaraz irri ta negar,
euskaraz kantu eta dantza
Egiteko prest bazaude
Zeu ere bazara Arantza (bis)

Kalean barna presentea...

ONGI ETORRI SAIOA. 2022/09/29.

LA PUERTA DEL EUSKARA

A pesar de ser difícil un cambio de sitio,
Hay una presencia más allá que el mapa.
A pesar de una lengua nueva nos da miedo,
Luego se agradece los pequeños esfuerzos.

Casas y calles, todo es nuevo,
Y con eso hay que cambiar las bases.
No te apures, en Arantza somos todos uno,
Y lo que nos une es el euskara.

**En las calles el presente, paz dentro de la casa.
Para mantener de pie el pueblo, para que lo améis, la puerta está abierta.**

Condicional, indicativo, subjuntivo, la declinación,
A pesar de que os parezca mucho, el cambio va despacio.

No puedes vivir pensando que lo vas a hacer mal,
Aunque te parezca difícil, todavía lo mejor no ha llegado.

El pueblo tiene una cultura, y la cultura un idioma, claro.
Y en Arantza somos euskaldunes.

Sin querer dentro de ti está naciendo un euskaldun,
Pues enseña en euskara el brillo de tus ojos.

En las calles el presente...

Dejando un pueblo y escogiendo otro es normal,
¿Escoger el euskara no es normal?

...

En euskara reír y llorar, en euskara cantar y bailar,
Si estás dispuesto a hacer esto, tú también eres Arantza.

En las calles el presente...